

BASOA

diagnostikoa



Zumaiena Ikastetxea
1.EBM

Aurkibidea

Sarrera	03.orrialdea
Datu-bilketa	04.orrialdea
LHko galdeketaren emaitzak	05.orrialdea
DBHko galdeketaren emaitzak	09.orrialdea
Ondorioak	14.orrialdea
Proposamenak	15.orrialdea
Erreferentziak	17.orrialdea

Sarrera

Iraganean Agenda 21 zena Eskola Agenda 2030 bilakatu da ikasturte honetan. Ikastetxearen jasangarritasunerako eta kalitaterako hezkuntza-programa hau komunitatearen partaidetzan oinarritzen da eta udalerriko garapen jasangarrian esku hartu eta laguntzen du, besteak beste. Ingurumen-hezkuntza programa bat denez, ingurumen-arazoen konponbidean parte hartzeko ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzea da agenda honen xede nagusia.

Ikasturte bakoitzean ingurumenari loturiko gai desberdin baten inguruko diagnostikoa burutu eta honen inguruko ekintza plan bat diseinatu ohi da, eta aurtengoan, Eskola Agenda 2030en baitako 15. GIH: Lehorreko ekosistemak ataleko 'Basoak eta hauetako biodibertsitatea' hain zuzen ere.

Gauzak honela, sentsibilizazio-ekintzen helburuak eta burutu beharrekoak diseinatu ahal izateko, gure ikastetxeko ikasleen diagnostiko bat burutzea izan da helburua: Zein da zuhaitz eta landareekiko dugun jarrera? Zein da basoekin dugun harremana? Nolakoa da inguruko zuhaitz eta basoen inguruan dugun ezagutza? Lotzen al dugu hau biodibertsitatearen zaintzarekin? Nola baloratzen dugu gaiaren inguruan egiten dena?

Zumaiena ikastetxeko etapa desberdinetako ikasleen diagnostikoa eginik, gabeziak identifikatu eta Eskola Agenda 2030 taldeko kideei proposamenak helarazi dizkiegu amaitzeko, ekintzak diseinatzekoan lagungarri izan daitezkelakoan.



Datu bilketa

Gaiaren inguruan egin beharreko diagnostikoa kontuan harturik, Zumaiena ikastetxeko ikasleek erantzuteko galdetegi bat diseinatu da honako galderekin; eta erantzuten lagundu eta datuen antolaketa bideragarria izan zedin, erantzuteko aukera desberdinak proposatu zaizkie.

- Gogoko al dituzu zuhaitz eta landareak?
- Zenbat landare dituzue etxean?
- Ba al dakizue zein landare mota diren?
- Baldin badakizue, ba al dakizue jatorriz Euskal Herrikoak ala kanpokoak diren?
- Zein maiztasunekin joaten zara basora?
- Zer da ondoko irudian agertzen dena (zuhaitz landaketa bat ala basoa)?
- Jarraian agertzen direnetatik, zeintzuk dira ezagutzen dituzun EHko basoak?
- Esan ondorengo zerrendatik zeintzuk diren ezagutzen dituzun EHko zuhaitzak.
- Zein da inguruan gehien ikusten duzun zuhaitz mota?
- Inguruko basoen garrantziaz ohartzen garela uste al duzu?
- Zergatik uste duzu garrantzitsuak direla basoak?
- Zer da biodibertsitatea edo bioaniztasuna deritzoguna? (DBHko ikasleek)
- Biodibertsitatea zaintzeko behar adina egiten dela uste al duzu? (DBHko ikasleek)

Datuen antolaketa eta grafikoen sorreran ematen dituen erraztasunak kontuan hartuta, eta adin-tarteko gaitasunak behar bezalakoak direla iritzita, LH5, LH6 eta DBHko ikasle guztiek Google Inprimakiak aplikazioaren bitartez osatu dute galdeketa.

Bestalde, LH1, LH2, LH3 eta LH4ko ikasleek aplikazioa erabiltzeko izango luketen ezintasuna edo zailtasuna kontuan hartuta, galdera-erantzun txantilo bat osatu da ikasgela bakoitzeko tutorearentzat. Hala, tutoreak berak txantilo honetaz baliatuz bideratu du galdeketa ikasgela bakoitzean, erantzun-aukera bakoitzean ikasle kopurua zehaztuz. Datu hauek Excel koadroetan kopiatu dira ondoren, LHko ikasle guztien erantzunei batu eta etapa honen ondorioak atera ahal izateko.


Azkenik, aipatu behar da galdeketa bideratzeko erraztasunak kontuan hartuta ikasle guztiei helarazi nahi izan zaiela. Dena den, egoera pandemikoa eta beste hainbat arrazoi zirela medio LH eta DBHko ikasleen %90ek erantzun du; kopuru adieragarria inondik ere.

LHko galdeketaren emaitzak


Zumaiena ikastetxeko LHko 240 ikasleei egindako galdeketetan lortutako emaitzen arabera, ikasle hauen **gehiengo zabal bati (%70,8) asko gustatzen zaizkie zuhaitz eta landareak** edota gustatu egiten zaizkie (%24,6). Aldiz, oso gutxi dira gogoko ez dituztenak (%1,7) ala zer erantzun ez dakitenak.

Datu hauen erakusgarri izan daiteke etxean dituzten landareen kopurua. Izan ere, ikasle hauen **%16,6 soilik dira etxean landararik ez dutenak**. Gainontzekoen artean, 1-5 landare dituzte gehienek (%37,5), 5-10 artean beste batzuk (%21,3) eta asko dira 10 baino gehiago dituztenak (%22,5).

Gogoko al dituzu zuhaitz eta landareak?




Zenbat landare dituzue etxean?




Dena den, zaletasun handia izanagatik, **gehienek ez dakite zein motatakoak diren etxean dituzten landareak** (%43,6) eta ezagutzekotan ere, bat edo beste ezagutzen dute gehienek (%34,8). Gainera, landare motak ezagutu arren gehienek **ez dute ezagutzen landare horien jatorria** (%54,4) eta gehienak ezagutzen dituztenen artean -diotena zuzena izatearen berme handiena dutenak-, ia kopuru berean dituzte kanpokoak diren landareak (%9,8) eta bertakoak (%7,3).

Ba al dakizue zein landare mota diren?




Baldin badakizue, ba al dakizue jatorriz hemengoak ala kanpokoak diren?




Basoak ezagutzeko modu bat hauetara joatea dela iritzita zein maiztasunekin joaten diren galdetu zaienean, denetarikoa izan dira erantzunak. Izan ere, astean behin edo gehiagotan joaten direnak %27,1 diren arren eta bi astean behin joaten direnak %17,1 gainontzekoak (**%55,8**) **hilabetean behin baino gutxiagotan joaten dira basora**. Bestalde, eta gehiagotan joan arren, **basoak eta zuhaitz-landaketak desberdintzeko zailtasunak** agerian geratu dira (%69,2 ez da gai izan). Hortaz, baliteke ikasleak basora joaten direla esan arren errealitatean zuhaitz-landaketa artean ibili izana.

Zein maiztasunekin joaten zara basora?




Zer da ondoko irudian agertzen dena?




Bisiten maiztasuna alde batera utzita, ezagutzen dituzten basoen inguruan galdetuta Pagoeta da gehienek ezagutzen dutena (167 ikasle). Zarautz-Aia bitartean egonik eta gertutasuna dela-eta datu hau harrigarria ez den arren, deigarria da gainontzeko 73 ikasleek ez ezagutzea. Iratiko basoa, Aizkorri-Aratz eta Urkiola ikasle ugarik ezagutzen dituzten arren (ikasleen herenak gutxi gora-behera) oso gutxik ezagutzen dituzte Urbasa-Handia (33 ikaslek), Gorbeia (16 ikaslek) eta Izki (12 ikaslek).

Jarraian agertzen direnetatik zeintzuk dira ezagutzen dituzun Euskal Herriko basoak?




Zuhaitzen inguruko ezagutzei dagokionean, **aipagarria da jatorriz Euskal Herrikoak direnenak eta ez direnak bereizteko dituzten arazoak**. Ikasleen adina kontuan izanik (6-12 urte bitartekoak dira) zuhaitz motak ez identifikatzea normala izan daitekeen arren, nabarmentzekoa da gehienek pinua bertakotzat izatea (81 ikasle), eukalipto (32 ikasle), aguakate zuhaitza (12 ikasle) edota kaktusak (13 ikasle). Bestalde, bertakoak diren zuhaitz asko eta asko ez dituzte ezagutzen. Aipatzekoa da zentzu honetan, ikasle gehienek 5-6 zuhaitz mota desberdin ezagutzen dituztela.

Esan ondorengo zerrendan agertzen direnetatik zeintzuk diren EHko zuhaitzak.




Zuhaitz motak identifikatzeko dituzten zailtasunek erabat baldintzatzen dute inguruan dituzten zuhaitzen pertzepzioa. Hau ahaztu gabe, **pinua da ikasleek inguruan gehien hautematen dutena (%66,7) eta askozaz ere maila apalagoan pagoa (%8,3)**.

Zein da Euskal Herrian gehien ikusten duzun zuhaitz mota?




Kontzientziazioaz galdetuta, ikasleen **ia erdiak uste du basoen garrantziaz oso kontzienteak gara** (%48,8), laurdenak kontzientziazio maila apalago bat dugula (%26,3), eta beste laurdenak gutxi batzuei arduratzen dien gaia dela (%24,6). Garrantziak zertan datzan galdetzean, **gehienek hainbat arlotan duten eragina ulertzen dute** (%80), baina deigarria da %12,1ak garrantziaren zergatia ez ezagutzea eta %7,5aren ustez edertasuna izatea arrazoia.

Inguruko basoen garrantziaz ohartzen gara uste al duzu?



Zergatik uste duzu direla garrantzitsuak zuhaitzak?




DBHko galdeketaren emaitzak


Zumaiena ikastetxeko DBHko 183 ikasleei egindako galdeketetan maila guztietako 152 izan dira lortutako erantzunak, eta beraz, errepresentagarria izan da lortutako lagina. Lortutako emaitzen arabera, **ikasleen erdiari (%49,3) gustatzen zaizkie basoak, eta beste %34,9ri asko gustatzen zaizkie**. DBHko ikasleen %15ak adierazi duenez ez daki zer esan ala ez zazkio basoak gustatzen, eta LHko datuekin alderatuta, aipagarria da **basoekiko zaletasuna nabarmen jaisten dela etapa batetik bestera**.

Datu hauen erakusgarri izan daiteke etxean dituzten landareen kopurua. Izan ere, ikasle hauen **%15,1 soilik dira etxean landararik ez dutenak**. Gainontzekoen artean, 1-5 landare dituzte gehienek (%32,2), 5-10 artean beste batzuk (%28,9) eta asko dira 10 baino gehiago dituztenak (%23,7).

Gogoko al dituzu zuhaitz eta landareak?




Zenbat landare dituzue etxean?



Dena den, zaletasun handia izanagatik, **ikasleen erdiak dituzten landareen artetik bat edo beste bakarrik esango lukete zein motakoa den** (%51,9) eta %31,8 dira gehienak edo guztiak ezagutzen dituztenak. Gainera, landare motak ezagutu arren **askok ez dute ezagutzen landare horien jatorria** (%39,8), %42,6ak

bat ala besteren jatorria ezagutzen du, eta gehienak ezagutzen dituztenen artean -diotena zuzena izatearen berme handiena dutenak-, %6,5ak kanpoko jatorriko landareak dituztela diote eta %11,1ak bertako jatorria dutenak.

Ba al dakizue zein landare mota diren?




Baldin badakizue, ba al dakizue jatorriz hemengoak ala kanpokoak diren?




Basoak ezagutzeko modu bat hauetara joatea dela iritzita zein maiztasunekin joaten diren galdetu zaienean, denetarikoa izan dira erantzunak. Izan ere, astean behin edo gehiagotan joaten direnak %17,8 diren arren eta bi astean behin joaten direnak %17,1 gainontzekoak (**%65,1**) **hilabetean behin baino gutxiagotan joaten dira basora eta beraz, adinean aurrera doazen heinean gutxiago joaten direla esan dezakegu.** Dena den, **basoak eta zuhaitz-landaketak bereizteko gaitasuna aurreko etaparen aldean garatuta dutela ikusi da;** %73k asmatu baitu. Beraz, zentzu honetan ikasturtean zehar gaiari buruzko **sentsibilizazio saioek eragin positiboa** izan dutela esan genezake.

Zein maiztasunekin joaten zara basora?




Zer da ondoko irudian agertzen dena?




Bisiten maiztasuna alde batera utzita, ezagutzen dituzten basoen inguruan galdetuta Pagoeta da gehienek ezagutzen dutena (%92,8). Zarautz-Aia bitartean egonik eta gertutasuna dela-eta datu hau harrigarria ez den arren, deigarria da gainontzekoek ez ezagutzea. Iratiko basoa eta Urkiola ikasleen erdiak ezagutzen dituzten arren, oso gutxi ezagutzen dituzte Aizkorri-Aratz (%36,2), Gorbeia (%36,8) edota Urbasa-Handia (%28,3); eta inork ere ez Izki (%9,9) eta Artikutza (%10,5). **Euskal Herriko lurralde desberdinetako basoak izanik, deigarria da ezagutza maila apala.**

Jarraian agertzen direnetatik zeintzuk dira ezagutzen dituzun Euskal Herriko basoak?



Zuhaitzen inguruko ezagutzei dagokionean, **aipagarria da jatorriz Euskal Herrikoak direnak eta ez direnak bereizteko dituzten arazoak; batez ere pinuei dagokienean.** Gehienek (%64,5) pinua bertakotzat dute, eta batzuek baita eukaliptoak (%15,1), aguakate zuhaitza (%5,9) edota kaktusak (%9,2) ere. Badirudi, inguruan duten presentziak nolabaiteko bertakotasun sententzia sortu duela ikasleengan. Bestalde, bertakoak diren zuhaitz asko ez dira oso ezagunak.


Esan ondorengo zerrendan agertzen direnetatik zeintzuk diren EHko zuhaitzak.



Zuhaitz motak identifikatzeko dituzten zailtasunek erabat baldintzatzen dute inguruan dituzten zuhaitzen pertzepzioa. Hau ahaztu gabe, **pinua da ikasleek inguruan gehien hautematen dutena etapa honetan ere, eta askozaz ere maila apalagoan pagoa eta haritza ere aipatuak izan dira.**


Kontzientziazioaz galdetuta, ikasleen **bost ikasletik bakarrak uste du basoen garrantziaz oso kontzienteak garela** (%20,4), eta gehienek uste dute zerbaitetaz ohartzen garela (%45,4). Aldiz, asko dira garrantzia gutxi batzuek ematen diotela uste dutenak (%31,6) eta batzuek batere garrantziarik ematen ez zaiela ere uste dute (%2,6). Hortaz, **kontzientziazioaren inguruan duten pertzepzioaren maila jaitsi egiten da Lehen Hezkuntzatik etapa honetara.** Hori bai, garrantziak zertan datzan galdetzean, **gehienek hainbat arlotan duten eragina ulertzen dute** (%88,8), baina deigarria da gainontzeko %11,2ak garrantziaren zergatia ez ezagutzea DBHn sentzibilizazio lanketa egin ostean.

Inguruko basoen garrantziaz ohartzen garela uste al duzu?



- Bai, oso kontziente gara.
- Bai, zerbaitetaz ohartzen gara.
- Gutxi batzuek ematen die garrantzia apur bat.
- Ez, ez zaie batere garrantziarik ematen.

Zergatik uste duzu direla garrantzitsuak zuhaitzak?




- Ez dakit.
- Ikusteko politikak direlako.
- Ikusteko politikak izateaz gain, biodibertsitatea zaindu, uraren zikloan parte hartu eta lurzorua higaduratik babesten dutelako.

Beste bi ondorio deigarri: alde batetik, gaiaren inguruko **sentsibilizazio ariketak egin arren DBHko ikasleen %36,2ak soilik du garbi bioaniztasunaren esanahia** eta ia beste horrenbeste dira bioaniztasuna eta fotosintesia nahastu dituztenak; eta bestalde, nahikoa gustora ageri dira bioaniztasuna zaintzeko gaur egun burutzen denarekin.


Izan ere, %34,9ak bai administrazio publikoaren eta baita jendearen partetik ere nahikoa egiten dela uste du, %17,1ak jendearen partetik nahikoa egiten dela uste du, eta hortaz, administrazio publikoaren aldetik soilik egiten dela nahikoa osatzen duten %27,6ak eta orokorrean nahikoa egiten ez dela uste duen %20,4ak soilik erakusten du nolabaiteko jarrera autokritikoa. Ondorioz, iritzi desberdinak eta nahasmena nabari dina gai honi dagokionean.

Zer da biodibertsitatea ala bioaniztasuna deritzoguna?



- Landareek oxigenoa sortzeko burutzen duten prozesua.
- Landareen aniztasuna.
- Bizidunen aniztasuna.
- Zuhaitzen ugartasuna.

Gure basoetako biodibertsitatea zaintzeko behar adina egiten dela uste al duzu?



- Bai; bai administrazio publikoa eta baita jendearen aldetik ere.
- Bai; administrazio publikoaren aldetik.
- Bai; jendearen aldetik.
- Ez.

Ondorioak

Ikasle gehienek landareak gustatzen zaizkiela edota asko gustatzen zaizkiela esan eta etxean landareak dituzten arren, gehienek ez dakite zein motako landareak dituzten edota jakitekotan bat edo beste ezagutzen dute. Ondorioz, ez da harrizkoa hauen jatorria ere ez ezagutzea.

Ikasleek basoekin duten harremanari dagokienean, ikasle gehienak hilean behin edo gutxiagotan joaten dira basora. Ondorioz, oso apala da orokorrean Euskal Herriko basoen inguruan erakusten duten ezagutza maila. Izan ere, Zumaiatik 10 kilometrotara egon arren LHko ikasleen herenak ez du Pagoeta ingurua bera ere ezagutzen eta DBHn ezagutza maila orokorrak gora egin arren, baso gehienek kasuan %28 eta %55 bitartekoa da ezagutza.

Bestalde, aipagarria da LHko ikasleek zuhaitz landaketa eta basoa bereizten ez dituzten bitartean DBHko ikasle gehienak gai izatea. Gaiaren inguruko sentsibilizazio saioak egin ondoren egin zen galdeketa, eta beraz, baliteke lanketa honen emaitza izatea.

Zuhaitz moten inguruko ezagutzari dagokionean berriz, pinua eta pagoa dira ikasleen erdiak baino gehiagok ezagutzen dituen bakarrak. Gainontzeko zuhaitz motei dagokionean, esan daiteke oso zuhaitz mota gutxi ezagutzen dituztela orokorrean; eta hau horrela izanik, ez dakite zeintzuk diren jatorriz Euskal Herrikoak. Zentzu honetan, ikasleen bi herenek inguruan gehien hautematen duten zuhaitz mota pinua da, eta beraz, bai hauek eta baita eukalipto zuhaitzak ere bertakotzat dituzte orokorrean.

Basoak zaintzea biodibertsitatea babesteko

Sentsibilizazio saioen ondoren ikasle batzuek bioaniztasunaren esanahia oraindik ezagutzen ez duten arren, gehienek uste dute basoek honen zainketan duen garrantziaren inguruko kontzientzia maila altua dela eta zentzu horretan garrantzia aitortzen diote basoei.

Hala, gutxi dira basoak zaintzeko nahikoa egiten ez dela uste dutenak. Honen inguruan usteak desberdinak diren arren, herenak uste du nahikoa egiten dela bai administrazio publikoa eta baita jendearen partetik ere, beste ia heren batek administrazioak soilik nahikoa egiten duela, eta %17k jendeak soilik nahikoa egiten duela. Hau honela izanik, ondorioztatu daiteke nahikoa ondo baloratzen dutela zentzu honetan egiten dena.

Gomendio eta proposamenak

Ondorioak aztertu ondoren, argi ikus daiteke lanketa-ekimenen beharra. Hortaz, hautemandako hutsune bakoitzaren aurrean hainbat ekimen proposatzen dira:

- **Inguruko zuhaitzak bereizteko ekintzak.** Pandemia egoera honek taldean egiten diren joan-etorriak zaintzen dituela kontuan hartuta eta ezezagutza herrian bertan dugunarekiko ere badela iritzita, inguruko zuhaitzak bereizten ikasteko ekintzak aurrera eramanez hasi gintezke.

Adibidez, HHn eta LHko lehen zikloan ikastetxean bertan dugun Baso Magikoa sentitzeko (usaindu, entzun, ikusi) ekintzak burutu litezke, LHko bigarren zikloan hostoen bilduma eginez zuhaitz hauek identifikatu eta izendatu, eta DBHko kasuan, aurrekoen lanketaz baliatzeaz gain Zumaian ditugun zuhaitzak identifikatu eta mapa interaktibo batean kokatu hostoen eta zuhaitzaren irudiak gehituz.

- **Sentsibilizazio/Kontzientziazio jarduerak.** Garbi dago gizakiaren jardueraren eta administrazio desberdinen pasibitatearen eraginez desiragarrienak ez diren egoeratan aurkitzen ditugula sarritan basoak; eta hala ere, kontzientziazio maila altua dugula uste izateaz gain egiten denaren gaineko nahikoa konformismo maila altua nabaritzen da.

Hau honela izanik, sentsibilizazio jarduerak proposatzen dira: basozainen hitzaldiak, egoera ez desiragarrien albisteen inguruko hausnarketak, inguruko landaredi eta basoetan utzitako zaborraren argazkiak, e.a.

- **Ikastetxeak antolatutako txangoak.** Helburua biodibersitatea zaintzeko basoen zainketaren garrantziaz jabetzea izanik, aukera sortzen denean lehen urratsa Euskal Herriko baso desberdinak ezagutzen joatea izan daiteke. Adibidez, galdeketan aipatzen ziren zortzi basoak bisitatzeko LH3 eta DBH4 bitartean urtean behin joatea nahikoa litzateke.

Bisita hauek lanketa baten ondoren eginez gero (autobusez bertaratu bitartean edota aurreko tutoretzan izan liteke), basoak eta bertako biodibersitatea ezagutu eta baloratzeko aukera izango lukete bai ikasle eta baita irakasleek ere.

- **Eskolaz-kanpoko jarduerak.** Basoetara joateko ohitura faltari irtenbidea emateko baliagarria izan litekeen arren aurreko proposamena, baliteke nahikoa ez izatea. Hortaz, eskola-ordutegiz kanpoko jarduerak ere proposatu genitzake jarraipen bat emateko: argazki lehiaketak, proposamenak eta jarraibideak aurkezten dituen liburuska edota webgune bat kaleratuz, e.a. Honek guztiak, eta ondo burutuz gero, sentsibilizazioa areagotzen lagundu lezake.
- **Landareak identifikatzeko app-ak.** Etxean dituzten landareen ezagutza-maila modu kolektiboan hobetzea zaila denez, app desberdinak proposatu daitezke.



Erreferentziak

· Eskola Agenda 21i buruz:

<https://www.euskadi.eus/eskolako-agenda-21-jasangarritasunerako-hezi/web01-a2inghez/eu/>

· Eskola Agenda 30i buruz:

<https://www.euskadi.eus/pdf/2030-agenda-garapen-jasangarria-desarrollo-sostenible-basque-country.pdf>